

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko uztailaren 9a / 681. zenbakia



ZERAMIKA ERAKUSKETA

LOIXE ELKARTEAK IPINI DU MONTERRONEN

ORAIN ETA HEMEN: MONTERRON PARKEA/6 • GAZTEAK: 'BIBLIOPORRAK' GIDA/13

EDERTASUN GIDA/20

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 9**
Zabala, Zarugalde 42, 943 77 16 30
- ZAPATUA, 10**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- DOMEKA, 11**
Azkoaga, Iturriotz 17, 943 79 79 99
- ASTELEHENA, 12**
Corcuera, Maisu Aranbarri 1, 943 79 22 26
- MARTITZENA, 13**
Irizar, Erguin 11, 943 79 12 39
- EGUAZTENA, 14**
Amezua, Santa Marina 32, 943 79 09 74
- EGUENA, 15**
Español, Araba etorb. 14, 943 79 18 65
- EGUBAKOITZA, 16**
Azkoaga, Ferrerías 1, 943 79 15 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea, 943 03 53 00
Iguualatorioa, 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak, 943 79 39 00
Emakumeak, 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea, 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak, 112
Gurutze Gorria, 943 76 55 76
DYA, 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua, 943 46 11 11
Astelenehenetik egubakoitzera, 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan, 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan, egun osoa
- Arrasate**
Astelenehenetik egubakoitzera, 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan, 09:00etatik 14:00etara.
• Txanda hartzeko: medikuntza orok, eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak, 943 03 53 11
• Ikuskatzaileak, 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak, 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak, 943 45 87 44
- ERTZAIINTZA**
Arrasate, 943 79 71 99
- SUHILTAILEAK**
Udal taldea, 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua, 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea, 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua), 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero), 943 12 01 62
Gasa, 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak, 943 79 12 22
PESA, 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza, 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza, 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron, 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|--|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

HARREMANEN BERBALDIA
Eguaztenean, uztailearen 14an, Sebastian Uribetxebearriak berbaldia egingo du Kolonbiako San Clemente proiektuaren gaur egungo eta etorkizuneko egoeraren berri emateko. Berbaldia Monterronen izango da, 19:00etan, eta Harreman taldeak antolatu du.

KONPOSTAJEA BERBAGAI
Bihar, zapatua, konpostajearen gaineko berbaldia egingo dute auzo etxean, Patxizarrenean. 09:00etatik 12:00etara izango da, eta Fraisoro eskolako teknikari Jesus Calvilok emango du. Gura duenak joan ahal izango du.

ESKLEROSI ANIZKOITZA
Etzi, domeka, Santa Marinako Toki Argi erretiratuen elkarteak esklerosi anizkoitza dutenen aldeko ekintza egingo du Musakolako igerilekuan. Igerilarien artean diru-bilketa egingo dute, eta hainbat produktu salduko dituzte. 11:00etatik 19:00etara egongo dira.

ZERAMIKA ERAKUSKETA
Loixe elkarteak zeramika erakusketara ipini du Monterronen. Uztailearen 5etik hilaren 17ra arte zeramika ikasleen eta elkarte bazkideen hainbat lan erakusgai egongo dira.

AEDren AGENDA

EUSKAL KANTUEN LIBURUKA
Seaskak eta Nafarroako Ikastolen Elkartek 164 euskal abestiz osatutako poltsikoko liburuxka argitaratu dute. AEDn dute salgai, oso merke.

KULTUR ERROTA
Datorren egubakoitzean, uztailearen 16an, Rafa Ruedak kontzertua egingo du Ferreríasko plazatxoan, 23:00etan.

URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAIN DELA 10 URTE ARRASATEN


Umezaintzak eraikina inauguratu zuen

1992an 0 eta 3 urte bitarteko umek Umezaintzako eraikin berria erabiltzen hasi ziren arren, ofizialki 1994an inauguratu zuten eraikina. Baimena lortzeko hainbat gorabehera izan zirelako izan zen inaugurazioaren atzerapena. Eraikin horrek 175 milioi pezetako aurrekontua izan zuen.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Apixa”



Kabia
— Zozuak asita dare apixagiñan.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA
Domeka, 4 **9 °C**


MAXIMOA
Domeka, 4 **30 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²)
4,7 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 30	24 °C	13 °C	- l/m ²
Eguena, 1	20 °C	12 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 2	22 °C	12 °C	- l/m ²
Zapatua, 3	26 °C	10 °C	- l/m ²
Domeka, 4	30 °C	9 °C	1,4 l/m ²
Astelehena, 5	19 °C	17 °C	0,9 l/m ²
Martitzena, 6	24 °C	16 °C	2,4 l/m ²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



‘www.bilalan.net’, lana euskaraz egiteko edo langile euskaldunak bilatzeko, atari berria

Oraingo astean, *Bilalan.net*, euskara lan munduan bultzatu gura duen atari berria, ezagutu dugu *Uda giroan* saioan. Hain zuzen ere, euskaraz funtzionatu gura duten elkarte eta enpresek langile proposak aurkitzeko tresna izango dute aurrerantzean. Bestalde, lan bila dabilzanek ere baliagarriak izango dituzte oso webgunerik eskaintzen dituen abantailak.

Arrasateko Udaleko Euskara teknikari Joxe Felix Diaz de Tuestak astean barrena atariaren gai-

nean emandako azalpenak berreskuratu egingo ditugu, asteburuko gainbegiratuan, zapatuan eta domekan, 10:00etan.

ASTELEHENEAN, LEZE TXIKIRA

Astelehenean, berriz, 09:30ean, *Uda giroan* saioan Leze Txikiko kobazuloetara hurbilduko gara, Arantzadi zientzia elkartearen indusketa lanak bertatik bertara ezagutzeko. Horrela, bada, Alvaro Arrizabalaga arkeologarekin eta ikasle batekin egin dugu hitzordua.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ZAPATUA
10:00 **Asteko elkarrizketak:** Pello Zabala, metereologia ikastaroak, Aitzol Aramaio, zinegilea; Maider Arriaran, Oñujantziaren gainean...

DOMEKA
10:00 **Asteko elkarrizketak.**

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA

- 09:00-11:00 **UDA GIROAN**
Albisteak.
Elkarrizketak.
Erreportajeak.
Estilismoaren tartea.
Hondartzak, igerilekuak eta urtegiak.
Eguraldi iragarpena.
Txatxilpurdiren udalekuak.
Zozketak, zorion-agurrak.
- 11:05 **Izarren ordua:** abesti ezagunak.
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 12:15 **Musika.**
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegi.**
- 14:00 **UDA GIROAN** errepikapena.
- 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

KALEINKESTA/ Bakaziñuek Internet bidez organizetan dozu?



JAVIER SIERRA
Iksasie



DORLETA EGIARA
Iksasie



ARRATE EGIARA
Langillie



IÑAKI BALANZATEGI
Langillie



JENIFER RONDON
Langillie



JON ANDER URRUTIA
Langillie

Ez. Egixe esatiarren, neuk Internet jolasteko eta holakuetarako ibiltzen dot, baiñe bakaziñuek organizetako ez. Etxien, baiñe, geure aitte ibiltzen da holakuek Internet bidez egitten.

Ez, neuk agentzia bittartez organizetan dot bakaziñuek. Bueno, hegaldixek-eta hartu izen dot, normalien baiñe merkiauek egoten die eta; gaiñera, sekule be ez dot problemarik euki.

Bai, neuk behin baiño gehixautan ibilli dot Internet: bai hegaldixek hartzeko eta baitte hotelak erreserbetako be. Prezio aldetik oso ondo egoten die, eta gustora geratu izen naz.

Azkeneko hiru urtien behin bakarrik egin dot hori, eta egixe esatiarren, gustora geratu gitzen. Bakaziñuek organizetako modu ona da; gaiñera, ofertak onak egoten die.

Normalien agentzia bittartez egitten dot, Interneten holakuek egitten hasten nazenien nahastu egitten naz-eta. Denpora luzie galitzen dot eta ez dot jakitten zertan nabillen.

Bai, azkeneko bi urtitan Internet bidez egin dot erreserbak, eta resultau onak euki dot. Ez dot problemarik euki, eta tokau jat normalien baiño oferta hobiek topetie.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK BURDINAZKO ESTALKIAK BERE LEKUAN Orain dela aste batzuk, Txistuak atalean aditzera eman genuen erdialdeko autobus geltokiaren inguruan zuhaitz batzuen burdinazko estalkiak gorantz igota zeudela. Hainbat lagunek istriptuak izan zituzten, eta hori konpontzea eskatu zuten. Astean ikusi dugunez, dagoeneko konponduta daude. Horrexegatik, txaloak eman gura dizkiegu konpondu dituztenei.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

KIROLA / 8

ZAHARRAK / 14

Egitamua dela eta, salaketak

Ekologistak Martxan taldeak Egitamu Orokorra lantzeko orduan Udalak duen jarrera salatu du.

AKPko udalekuak

Bihar, zapatua, iritsiko dira AKPko neska-mutikoak, Berne-don hamar egun egin ondoren.

Larruazalaren gainean

Astean, Toki Argi erretiratuen elkartearen larruazalaren gaineko berbaldi interesgarria egin dute.

ASTEKO DATUA

13

UME ETORRI DIRA SAHARAKO KANPALEKUEK

Astean, hamabi ume etorri dira Saharako Aiun kanpalekutik. Aurretik Smara kanpalekutik etorritako Fadel batu behar zaie. Nubi elkarteak eta Udalak ekarri dituzte uda pasatzera.

BESTE EKESANA

“Larruzko besaulki beltzean eseriarazi ninduen. Toalla bat jarri zidan sorbaldan. Burua atzerantz bota

eta garondoa konketaren ertz borobilduan pausatu nuen. Begiak pixka bat goratuta nituen arren aise ikusten nuen ile-apaintzailearen irudia pareko espiluan islatuta. Beroaren poderioz, ohi baino gorrituago zituen Inesek masailak. Beharantz jo eta ezker bularraren gainean zeraman tatto-ari erreparatu nion, ordura arte ikusi gabea neukana: tximeleta bat, txikia, koloretsua. Kamixeta more estuan lotuegi ziruditen Inesen errege-sagar tankerako titiek. Titipunta hanpatuek bularretakoan falta salatzen zuten, gora begira, pistola biren muturrak iduri. Hortik beherakoa ez neukan espiluan ikusterik (...)”

DIEGO MARTIARTU
'GARA'/04-07-01

HERRITARREN BERBAK/ Oihan Zubizarreta



On egin

U da iritsi da. Eta udarekin batera beroa. Hain handia ei da eguzkiak lurraren gainean egiten duen indarra, non badirudien kiskali egingo garela oraingoan. Handia, ozonoa delako horretan egin dugun zuloa dela uste dut. Bero gabiltza beraz, eta bero ibiliko gara. Iragarpenak ez dabilta oker. Mundu honetan, Herri honetan bero-bero baikabiltza azkenaldian. Bero gabiltza ozonoko zuloa dela eta, baina berotuta gabiltza ere inguruotan gertatzen direnak ikusita. Ez dira gutxi egiten ari direnak. Zeruarekin aski ez, eta ondo asko txikitutako lurra birrin-du nahi dute oraingoan.

Iritsi da opor garaia, eta nork bere automobila, monobolumena edo tramankulua hartuta autopista, aireportu eta trenbideetan galduko du bere burua. Bidaiaren helmugara iritsiko da eta udako ordainsari oparoekin xahutuko ditu bere sosak. Beraz, ezin

hobeto igaroko ditugu datozen porrak.

Eskerrak, azkenotan modan modan jarrita dagoen jasagarritasunari esker eskura dugun pagotxa. Eskerrak, agintariarik horren ozen goripatu eta defendatzen dituzten autopistei, abiadura handiko treni, erraustegiei, harrobiei. Honela sustatuko ditugu turismoa, enplegua, etxebizitzak, merkataritza trafikoa... Eskerrak horri guztiari, eta Ezkerra isilik.

Eta nora garamatza ba guzti honek? Dirua eta kapitalaren zerbitzupeko azpiegiturak ote? Pertsonak interes hauen menetara trafikatzeko bideak ote? Zulatu eta zulatu ari zarete, ozonoko geruzaren imitazioa lurrean islatu guran edo. Zuen zuloei kaka dariela ez zarete konturatzen. Jasan-garritasuna hartzen duzue ahotan. Jasanezinak zarete. Ea udako beroak zuen ideia makur horiek gehiago makurtzen ez dituen. Dutxa hotz batzuk hartu, eta on egin.

“Bero gabiltza ozonoko zuloa dela eta, baina berotuta gabiltza ere inguruotan gertatzen direnak ikusita”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Kommunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ASTEABIHITZETAN

Fadeli: herrira etorri den lehen sahararra

Hamar urte ditu Fadeli eta Smarako kanpalekutik dator. Hura izan da aurtengo oporrak Arrasateko familia batekin igarotzera etorri den lehenengo haur sahararra. Joan den egubakoitzean iritsi zen Fadeli Arrasatera, eta asteburuan iritsi dira gainontzeko 12 gaztetxoak.

Gainontzeko haurrak Aiungo kanpalekutik datoz eta bi hilabete egingo dituzte gure artean. Arrasateko Udalak eguen arratsaldean egin zien ongietorri ofiziala.

Udalekuak hasi zituzten egubakoitzean

Egubakoitzean hasita, Arrasateko 300 neska-mutiko Txatxilipurdik antolatzen duen udalekutan dabilta.

Etxafuegoen eztaidarekin hasi zituzten joan den egubakoitzean aurtengo udaleku irekiak, eta uztailearen 23ra bitartean gura beste jolas egin ahal izango dute udalekutako haurrek. Ume horiek taldetan antolatuta egongo dira: erdigunean, Gazteluondon, Olarten, Musakolan, San Andresen eta Uribarrin banatuko dituzte. Ume horiek guztiak zaintzea ez da txantxetako kontua; aurten 32 begirale izango dira lan hori egiten.

Indusketa lanak hasi dituzte Leze Txikin

Azken urteotan moduan, aurten ere indusketa lanak hasi dituzte Leze Txikin. Joan den egunean hasi ziren lanean, besteak beste, Cacerestik, Valentziatik eta Galiziatik etorritako ikasleak. Euskal Herriko beste hainbat gazterekin batera dabilta lanean, eta 15 laguneko taldea osatzen dute.

Bi leizetan egingo dituzte lanok: bata, betikoa, On Joxe Migel Barandiaranek ikertu zuena; bestea, Alvaro Arrizabalaga Oñatiko arkeologoak eta bere taldeak duela lauzpabost urte aurkitutakoa. Uztailearen 18ra arte ibiliko dira Leze Txikin lanean.

**Errozioko erromeria egin zuten domekan**

Urtero moduan, Al Andalus elkartekoek Errozioko erromeria egin zuten joan den domekan Musakolako Arruena plazan. Eguraldia lagun, Gipuzkoa osotik etorritako ehunka lagun elkartu ziren erromerian. Jantzi tipikoak, urdaiazpiko eta ardo ederra, sevillanak... Ez zen ezer falta izan.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Parranda eta eskubideak

Dagoeneko heldu dira San Ferminak eta eurekin batera jaiaren, udaren eta parrandaren deia. Aurretik ere hainbat herritako jaiak izan diren arren, San Ferminak dira jai eta parranda zoroaren eredu argiena eta ia unibertsalena.

Despistatuta ibiltzen garenok, egutegiari begiratzeko ez diogunean, Txatxilipurdiko udalekuek ematen

digute horren abisua. Izan ere, azken urteotan, uztailearen 7an, entzierroa egiten du udaleku irekietako gaztetxo mordoak Herriko Plazan. Aurten ezin izan ditugu ikusi. Eguraldiaren erruz, Musakolako kiroldagian egin behar izan dute. Hala ere, begiraleei esker, 300 bat umek korrika egin dute.

Bestalde, urtero moduan, ikusgarria izan zen txupina-

zoaren egunean, Iruñeko irudiak ikustea. Hura jende mordo!!

Hainbat lagunek esan ohi duten moduan, historikoki jai guztiak dute salaketa edo aldarrikapen puntua. San Ferminen kasuan, urtez urte nagusitzen joan da txupinazora ikurrina eramatearena. UPNko agintariek ikurrina eta horren aldarrikapena hala nola ezkutatu gura dute. Eskerrak iruindarrek gogor egiten dutela, eskubide guztia dute-eta.

ASTEKOIRUDIA

**GELMA LANTEGIAREN INGURUKO ERAIKINAK BOTATZEN HASI DIRA**

Gelma lantegiaren inguruan hainbat eraikin bota dituzte, ingurua eraberritzeko. Arrasateko Egita-mu Orokorraren arabera, orain artekoa aldatu eta Gelma lantegia oso-osorik errekaraz alde batera kokatuko dute. Beste aldean, etxebizitzak egingo dituzte. Eremu hori egokitzen joateko, Gelma ingu-

ruko hainbat eraikin bota egin zituzten, horien artean Elektra SAREN pabiloi zaharra. Beste batzuk, ordea, bere horretan utzi zituzten, horiek eraberritzeko asmoa dutelako. Gelmako zuzendaritzaren esanetan, asmoa da oraingo langile guztiak jarraitzea. /ARRASATE PRESS



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebedun hizkiak

Aitor Belardenda

Osasuna eta elikadura

- Produktu dietetikoak
- Dieta pertsonalizatuak
- Aurpegi garbitzeak
- Masajista

Olarte 7 ARRASATE
943 79 90 43

BITTORI

ERRETEGIA



Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



NORK GURA DU 26 ZENTIMETROKO AMUARRAINA OPARI?

Ramon Ramilak 26 zentimetro pasatxoko bi amuarrain arrantzatu zituen joan den astean. Ez duguna esango da non arrantzatu zituen, Ramonek dioen moduan, hori sekretua da-eta. Argi dagoe-na da ez dituela Deba ibaian arrantzatu, oraindik ere asko itxaron beharko dugu-eta gure ibaian amuarrainak ikusteko. Arrantzan egin bai, baina amuarrainak ez dituela gura esan zigun Ramonek, eta arrainak oparitzera etorri zen. Inork gura baditu...



MADRILEN IKASTEN DABILEN MARGOLARI ESLOVAKIARRA ARRASATEN, MARGOAK SALTZEN

Miroslav Kohout Arrasaten egon da egunotan, ikasturtean zehar egin dituen margoak saltzen. Ikasturtea amaituta Miroslav eta bere ikaskideak Europan zehar ibiliko dira euren artelanak saldu eta datorren ikasturtea ordaindu ahal izateko dirua irabazten. Saltzeko zituen margo guztiak, baina, ez ziren

bereak. Oporrak hasi aurretik ikaskideek elkartrukatu egiten dituzte euren lanak, bakoitzak estilo propioa duelako, eta ahalik eta eskaintza zabale-na izateko. Laster Lugo aldera abiatuko da, hortaz, bere artelanak ikusi gura duenak hobe du azkar ibili. 666 774 478 telefonoan aurkituko duzue Miroslav; margoak ederrak dira.



TXATXILIPURDIKO HAURRAK SAN FERMINAK OSPATZEN

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, udalekuean dabiltzan Txatxilipurdiko gaztetxoek ondo baino hobeto ospatu zituzten San Ferminak. Eguzten goizean euri zaparrada ederra bota zuen, eta entzierra Herriko Plazan egin gura bazuten ere, azkenean Musakolako kiroldegira joan behar izan zuten. Argi dago 300 neska-mutiko kiroldegiraino eramatea ez dela batere erraza. Gidatu beauraleei, bestela.



EZKON AURREKO AGUR AFARIA GASTEIZKO TUNA ETA GUZTI

Ez zen Salamancako Tuna ezagunena, baina bai Gasteizko tunen artean martxa handiena zuena. Eta, alokatutakoak, gainera; Bearen ezkon aurreko agur afaria girotzera joandakoak, hain zuzen. Ez dakiguna da abestera bakarrik joan ote ziren. Bea eta Alfredo Beasainen ezkonduko dira uztailearen 17an, eta ondoren Mexikora joango dira ezkon bidaian. Han egonda, nola ez, tunez beharrean alokatutako mariachiek abestuko dizkiete sekula ahaztuko ez dituzten abestiak. Bearen lagunen partetik, zorianak, bikote!!!



Egin beharreko mozketen ostean, Monrerronen zer landatu eta zelan erabaki beharko dute; zelabait, diseinu berria egingo dute.

INGURUMENA/ Monrerron parkeko zuhaitzen azterketa egingo dute

Monterrongo zuhaitzen egoera aztertuko du Udalak

UBANE MADERA

Monrerron parkeko zuhaitzen egoera fitosanarioa jakiteko azterketak egingo dituzte uztailean. 40 zuhaitz aztertuko dituzte. Horren ondorioz, itxi egingo dute parkea uztaileko azken urteotan parkearen egoera dezente kaskarra da.

Azken urteotan Monrerron parkeko zenbait zuhaitz jausi egin dira eta beste batzuk bota egin behar

izan dituzte. Horrela, gainerako zuhaitzen egoera zein den zehazteko, Udalak erabaki du azterketa egitea. Zuhaitzen zutoinak zein adarrak aztertuko dituzte. Horretarako, besteak beste, zuhaitzen adarretaraino igo beharko dute adituek. Ingurumen Saileko teknikari Rafa Ugartek esan digunez, seguru aski, zenbait zuhaitzetan mozketak egin beharko dituzte; azterketaren emaitzen arabera erabakiko dute zati bat bakarrik moztuko duten edo zuhaitz osoa moztuko duten. Hain zuzen ere,

mozketok egiteko berriro itxiko dute parkea, irailaren azkeneko asteetan. Bien bitartean, parkea zabalik izango da.

ZUHAITZ ZAHARRAK

Lehen esandako moduan, Monrerron parkean dauden 200 zuhaitzetatik, 40 aztertuko dituzte, guztiak ere ehun urtetik gorakoak. Hain zuzen ere, parkearen beheko aldean dauden zuhaitzak aztertuko dituzte. Tartean, sekua handia ere bai; izan ere, puntu batean adarkatuta dago.



Gelma lantegia erreka beste aldera eramateko lanak abian

Egitamu Orokorren arabera, datozen urteotan, Gelmak erreka aldea bakarrean kokatu beharko du, eta ez oraingo moduan, erreka albo bietan. Hain zuzen ere, Eskualdeko Ospitalearen parera eramango dute lantegia, eta hori egiteko zenbait pabilioi berri eraiki beharko dituzte eta zaharrak berritu. Oraingo astean, adibidez, Elektra SAreneko pabilioi zaharra bota egin dute. /U.M.



Arrasateko
euskalgintza



ANTXON AZKOAGA/EUSKARA IKASLEA

“Niretako inportanteena da ikasi eta gero hitz egitea”

ARRASATEKO EUSKALGINTZA

Neguan euskara ikasten ibili ostean, badira batzuk udan ere ikasten segituko dutenak, bai euskaltegi-tako udako ikas-tarotetan, barnetegietan zein familia euskaldunetan egonaldiak egiten. Gu barnetegira doan ikasle batekin izan gara.

Izena, abizena... Nongoa zara?

Antxon Azkoaga naiz, 47 urte ditut eta Arrasatekoa naiz.

Zenbatgarren urratsean zaude?

Zazpigarrenean, uste dut. Baina lantegian ez dugu urratsik. Bederatzi lagun gaude, batzuek gehiago dakite eta beste batzuek ez horrenbeste. Baina zazpigarren urratsean-edo ibiliko gara.

Neguan Fagorren ikasten duzu?

Bai, astean hiru egunez, egun bakoitzean bi ordu.

Noiz hasi zinen euskara ikasten?

Joan den urtean. Txikitan banekien, gure aita hemengoa zen. Baina fraideek debekatu egin ziguten euskaraz egitea eta ahaztu egin zitzaidan.

Zerk bultzatu zintuen euskara ikastera?

Ni hemengoa naiz, euskara da nire hizkuntza eta beti neure buruak esaten zidan ikasi egin behar nuela. Lantegian bertan nuen nik ikasteko aukera, eta aprobetxatu egin nuen.

Noiz arte segituko duzu ikasten?

Euskaraz hitz egitea lortu arte, besterik ez dut nahi. Nik ez dut titulurik-eta nahi; egunero-

ko bizimodua euskaraz egin nahi dut; beste bi urtean-edo jarraituko dudala uste dut, guztira, lau.

Eta zer egingo duzu egun hori iristen denean?

Beste barik. Niretako inportanteena da ikasi eta gero hitz egitea, hitz egitea, hitz egitea...

Udan ere ikasten jarraitzea erabaki duzu...

Bai, laster barnetegira joango gara, Lizarrustira. Lehengo aldia da.

Eta udako beroarekin ikasi ahal izango duzue zerbait?

Barnetegia mendian dago, zuhaitz asko daude... Parke naturala da. Zortzi orduan ariketak eta mintza praktikak egiten ibiliko gara, baina horren ostean mendira joango gara, afariak egingo ditugu... Giro onarekin hobeto ikasten da. 24 orduz gaztelera barik egotea oso gogorra izango dela uste dut. Orain, nire lehen berba gaztelera da.

Euskara ikasten hasi zinetik duzun bizipenik onena...

Orain euskara txarto berba egiten dut, baina hitz egiten dut. Lehen ez. Ulertzen nuen baina ez gehiago. Orain, afarietan-eta ardo apur bat edan eta den-dena euskaraz egiten dut. Txarto, baina egiten dut. Aditzarekin daukat arazo handia.

“Euskara da nire hizkuntza eta neure buruak esaten zidan ikasi egin behar nuela”

“Euskara ikasteko zalantzan dagoenari esango nioke aukera badu has dadila”

Egitamuairen gaineko informazio eta eztabaida publikoa eskatu dute

UBANE MADERA

Udala lantzen dabilen Egitamu Orokorrekin lotuta, Ekologistak Martxan taldeak zenbait salaketa egin ditu. Besteak beste, salatu du Udalak ez duela gura herritarrei gai horren inguruan behar den moduko informaziorik eman. Bi mahai-inguru antolatu dituzte.

Herenegun egin zuen prentsurrekoa Ekologistak Martxan taldeak. Udala lantzen dabilen Egitamu Orokorrekin lotutako salaketak egin zituzten. Hain zuzen ere, Udalean egitamuari aurkeztutako alegazioak aztertzen dabilzala eta, Ekologistak Martxan taldearen iritzia zera da: "Orain arte moduan segitzeko beldur gara, eta ez dirudi egoera aldatuko denik; herritarrek ez dugu eztabaidaren berri izango eta ez dugu eztabaida horretan parte hartuko". Ekologistek gaineratu zuten uztailaren bukaera aldean, seguru aski, egitama aldatzea onartuko dutela Udalean. Eta horren ondorioz, herriko zenbait erakundek egingako proposamenak ez direla eztabaidatuko. Hala, egitaman lantutako gaien garrantzia nabarmendu ostean (etxebizitzaren arazoa, herriarendako zerbitzuak,



Ekologistak Martxan taldeko ordezkariak herenegungo prentsurrekoan.

urbanizazioa...) salatu zuten, besteak beste, Udalak ez duela herritarren parte-hartzea bultzatu ezta informazioa beharko lukeen zabaltasunarekin eman. Gauzak horrela, Udalak gabezia demokratiko handiarekin funtzionatzen duela salatu zuten.

Ekologisten ekimenak

Hala, egoerari aurre egiteko, Ekologistak Martxan taldeak Udalari hiru eskaera egin dizkio: herrita-

rrei informazioa emateko beste epe bat zabaltzea; alegazioak aztertzeko eztabaida publikoa deitzea eta irailean eta urrian herritarren parte-hartzea bultzatuko duen eztabaida antolatzea. Ekologistak Martxan taldeak, berriz, bi mahai-inguru antolatu ditu, besteak beste: bata oraingo astean izan da eta bestea uztailaren 15ean izango da. Ordezkaritza duten alderdi politikoetako eta bestelako zenbait elkarte gonbidatu dituzte.

Garaia Berrikuntza Gunea eraikitze lanak hasiko dira

U.M.

Garaia Berrikuntza Gunea eraikitze lanak laster hasiko dira. Eusko Jaurlaritzak falta diren lursailak nahitaez desjabetzeko prozedura bultzatuko du. Interesatuak uztailaren 27an eta 28an dute hitzordua.

Uztailaren ez bada, abuztuan hasiko dituzte Garaia Berrikuntza Gunea eraikitze lanak. Garaia-kudeatzaile Andoni Gartziak Arrasate Irratiari jakinarazita-koaren arabera, Garaia eraikitze beharreko lurren %60 erositako dute. Eta falta zaizkienak desjabetze sistemaren bidez erosiko dituzte orain. Horren harira, oraingo asteko gobernu batzarrean jakinarazi dute Jaurlaritzak zenbait

lursail nahitaez desjabetzeko agindua eman duela. Hala, interesa duen edozeinek (lurjabeek...) uztailaren 27an eta 28an, Udaleko Hirigintza Sailean du hitzordua. Bi egun horietan, lurrak okupatu aurretiko akta egingo dute. 09:30ean hasiko dira saioak. Eta lurjabeek eta gura dituzten laguntza tekniko guztiak eraman ditzakete ekitaldira (perituak, notarioak...). Besteak beste, lursailen gainean egon daitezkeen akatsak zuzendu ahal izango dituzte.

Hiru fase

Gauzak horrela, argi dago laster hasiko direla lanak. Andoni Gartziaren esanetan, hiru fasetan egingo dituzte. Lehenengoan, besteak beste, bi biribilgune egingo dituzte, bata Gautxori inguruan.

LABUR

Maiatzean egin zituzten nortasun agiriak Udaltzaingoan eskura daitezke


Joan den maiatzaren 26an eta 31n nortasun agiriak Arrasaten (IMIn) egin edo berriro zuzentzen dagoeneko eskura ditzakete nortasun agiri berriak Udaltzaingoan, edozein ordutan. Bestalde, horrekin lotuta, jakinarazi dute lau hilabete barrura arte (urrira arte, alegia) ez direla berriro etorriko nortasun agiri gehiago egitera.

BEHERAPENAK!



Erdiko kale 14 Tel.: 943 79 46 94





ARRASATE ATLETIKO TALDEA

Jon Ander Amado, Markel Blanco eta Iñaki Etxagibel izan ziren joan den asteburuan kadete mailako Espainiako Txapelketan.

ATLETISMOA

Markel Blancok zilarrezko domina ekarri du Espainiako Txapelketatik

Espainiako Federazioak uztail amaieran egingo duen kontzentrazioarako deitu du

XABIER URZELAI

Joan den asteburuan Arrasatek hiru ordezkari izan zituen kadete mailako Espainiako Atletismo Txapelketan: Markel Blanco, Jon Ander Amado eta Iñaki Etxagibel. Txapelketan zehar, baina, atletek baino protagonismo handiagoa izan zuten haizeak.

Eguraldiak ez zuten askorik lagundu joan den astean Huelvan egin zuten kadete mailako Espainiako Txapelketan. Haize zakarra ibili zen eta bero itogarria egin zuen. Hala, baldintza horiek ez dira atle-

tismoko probak egiteko aproposenak. Atletak batzuek beste batzuek baino hobeto jakin izan zuten egoera horri aurre egiten, eta horrek erabaki zuen txapelketa.

Markel Blancok 1.000 metroko lasterketa korritu zuen, eta bigarrena izan zen. Lehenengo sailkatu zenak, gainera, justu-justu irabazi zuen, metro bateko aldea baino ez zuen lortu-eta. Hala, balio handiko zilarrezko domina ekarri du Markelek Huelvatik. Gainera, Espainiako Federazioak uztail amaieran kontzentrazioa egingo du Estatuko atleta gazte onenekin, eta arrasatearra kontzentrazio horretan izango da.


Jon Ander Amadok eta Iñaki Etxagibelek, berriz, gura baino arazo handiagoak izan zituzten ibili zen haizearekin. Jon Ander Amadok 300 metroko lasterketan hartu zuen esku; 39 segundo pasatxoko denbora egin zuen eta hamargarren postuan sailkatu zen. Tamalez, marka horrekin ez zen finalerako sailkatu. Eta Iñaki Etxagibelek ere ederki sufritu zuen haizearen erruagatik. 100 metroko hesi lasterketan 15 segundo pasatxo egin zuen, eta 100 metroko lasterketan, berriz, 12 segundo. Denbora horiek ez dute erakusten Etxagibelen gaitasuna, arrasatearra azkarragoa da-eta.

PLATER TIROKETA

Jose Manuel Mantzizidor nagusi, Eibarren egin zuten plater tiroketako txapelketan

Joan den astean egin zuten Eibarren plater tiroketako txapelketa, eta parte-hartzaile asko izan ziren, tartean bi arrasatear. Eta guztietan onena Jose Manuel Mantzizidor mondragoetarra izan zen. Ramon Ramila izan zen esku hartu zuen beste arrasatearra, eta zazpigarren postuan sailkatu zen. Ramon Ramila ondo baino hobeto hasi zen; lehenengo 18 platerak hautsi egin zituen, baina geratzen zitzaizkion gainontzeko tiroketetan kale egin eta atzera egin zuen sailkapenean.

FOTOKIROLA



Gipuzkoako Birako seigarren etapa gertu

Besaidek uztailearen 18rako antolatu du Gipuzkoako Birako seigarren etapa. Eta etapa hori egiteko kostaldera joango dira berriro ere, Oriotik Zumaiara egingo dute-eta ibilaldia. Irteera 07:30ean izango da, eta 13:30erako itzuliko dira. Datorren astelehenetik eguenera arte eman ahal izango da izena Besaideren egoitzan, 19:30etik 20:30era arte. Besaidek dagoeneko bost etapa egin ditu; lehenengo etapen 40 lagun izan ziren, baina egin duten azken ibilaldian 80 lagun elkartu dira. /X.U.

FRONTENISA

Ibarreko onenak izateko bidean

Candido Hurtadok eta Jose Izquierdok Arrasateko eta Bergarako txapelketak irabazi dituzte

XABIER URZELAI

Candido Hurtado eta Jose Izquierdo ondo baino hobeto dabilta Debagoieneko Frontenis Txapelketan. Arrasaten eurak izan ziren onenak, eta joan den asteburuan, Bergaran, bigarren txapelketa eskuratu zuten segidan.

Ez dago Candido Hurtado eta Jose Izquierdo geratuko dituen bikoterik, nahiz eta Candidoren esanetan, joan den astean Bergaran jokaturako finalean justu-justu ibili: "Orain arte erraztasun handiagoarekin irabazi izan dugu,


baina zapatuko finalean Iñaki Sanchezek eta Kepa Garciak oso ondo jokatu zuten, eta larri ibili ginen eurei irabazteko".

Finalari dagokionez, norgehiagoka oso parekatua izan zen: bi bikoteetako inork ez zuen markagailuan aurrera egiteko gaitasunik erakutsi, 25. tantora arte ez, behintzat. Orduan, baina, Candidok eta Jose Izquierdok bost tanto segidan egin eta zeingehiagoka erabakita utzi zuten (30-25).

BIGARREN TXAPELKETA, SEGIDAN

Joan den astekoarekin, Arrasateko bikoteak bi txapelketa eskuratu ditu jarraian, Arrasaten eta

Bergaran onena izan da-eta: "Arrasateko txapelketan kanpoko hainbat bikote izan ziren, maila onekoak, eta txapelketa gogorragoa izan zen. Bergaran, berriz, betiko bikoteak izan gara, baina finalean gutxigatik irabazi dugu". Bergarako txapelketa amaituta, Candido Hurtadok argi dauka helburua: "Hurrengoa Oñatiko Txapelketa izango da, eta aurreko biak irabazi ditugunez, hara ere irabazteko asmoarekin joan behar dugu. Gero, Masterra etorriko da, eta aurreko txapelketetan puntu gehien eskuratu dituzten zortzi bikoteek jokatu dute hor. Ea lan txukuna egiten dugun".



AUTOR LUZARRAIDE

Candido Hurtado eta Jose Izquierdo ziren finalean faborito, eta ez zuten kale egin.

4x4 TRAKZIODUN AUTO TRIALAK

"Autoarekin mendira joaterakoan kontu handiz eta errespetuz ibili behar da"

Juan Etxebarria arrasatearra hamargarrena izan zen joan den astean Eskoriatzan egin zuten 4x4 trakziodun autoen proban

XABIER URZELAI

Juan Etxebarriak atsegin du autoa hartu eta mendira joatea. Hori da bere zaletasuna, baina argi utzi gura du mendira ezin dela joan astakeriak egitera; errespetu handiz ibili behar dela dio. Gustura geratu da Eskoriatzan egindako probarekin, helburua ondo pasatzea zen-eta.

Ondo pasatzea, eta autoa ez apurtzea, andregaiak erabiltzen duen Range Rover 300 Tdi autoarekin hartu zuen-eta esku Eskoriatzako proban: "Geure autoa ez da horrelako probetan parte hartzeko aproposena, oso handia delako, baina mendian autoarekin ibiltzea gustuko dudalako eman nuen izena, eta proba txukuna egin dugu". Juan hamargarrena izan da Eskoriatzako proban: "Oso pozik nago egindakoarekin, kontuan hartzen badugu neure helburua ondo pasatzea eta autoa ez apurtzea zela. Esan beharra daukat, gainera, meritua Roberto Madariagarena, neure kopilotuarena, dela. Automobil handia izatean manioobra mordoia egin behar izan genituen, eta hark egindako lana funtsezkoa izan zen; leku batzuetan autoa justu-justu sartzen zen-eta zirkuituan".

HOBETUEN KATEGORIAN

Eskoriatzako proban hiru kategoria izan ziren: seriekoak, hobetutako autoak eta prototipoak: "Nik hobetutako autoen kategorian hartu nuen esku. Geure autoa egunero erabiltzen dugu, baina mendira joateko prestatuta dago. Suspentsioak aldatuta ditu, mendiko gurpilak dauzka eta atzeko

gurpilak blokeatzeko sistema jarri nion. Hori da autoari egin diodan guztia. Horren harira, auto berrien gainean galdetzera-koan, hauxe Juanen erantzuna: "4x4 trakziodun auto berri batzuk oso erosoak dira errepidean ibiltzeko, eta eder askoak dira, gainera. Baina, nik ez dut gura horrelako autorik, mendian ibiltzeko ez dute-eta balio".

ZALETASUN GARESTIA?

Horrelako probetan esku hartzea garestia ote den galdetzera-koan, zera gaineratu du Juanek: "Autoa apurtzen ez baduzu ez da zaletasun garestia, baina autoa apurtuz gero lehenengo postuak ere ez ninduke poztuko. Kontuan izan behar da, baina, nik ez daukadala autoa espresuki horrelako probetarako prestatuta. Hori bai, seguru nago prototipoak dituztenek diru dezente gastatzen dutela. Prototipoak horrelako trialetarako bereziki prestatuta dauden autoak dira, eta horrelakoak dituztenek daukaten guztia ematen dute probetan. Horrela ibilita errazagoa da autoa apurtzea, eta hori bai da garestia. Neuk, gainera, bi trialetan baino ez dut parte hartu: Arbizun eta Eskoriatzan".

Eskoriatzan egin zuten moduko trialek gero eta jarraitzaile gehiago dituzte ibarrean, eta gero eta gehiago dira 4x4 trakziodun autoekin mendira joaten direnak: "Betidanik gustatu izan zaigu autoarekin mendira joatea; baina argi eta garbi utzi behar da mendian eginda dauden bideetatik bakarrik ibili behar dela, eta inguruak zaintzeko daudela. Autoarekin edozein modutan ibiliz gero erraza da kalte handiak egitea".



Juan Etxebarriak eta Roberto Madariagak lan ona egin zuten Range Rover autoarekin.

JUAN ETXEBARRIA

"Autoa apurtuz gero bai da zaletasun garestia; egunero ibiltzen dugun autoa da-eta"

"Eskoriatzan meritua handia izan zuen neure kopilotuak, lan handia egin zuen-eta"

"Geure autoa ez da horrelako trialetarako aproposena; handiegia da"

AKPko neska-mutikoak bihar iritsiko dira Bernedotik

X.U.

Joan den egunean abiatu ziren Arrasate Kirol Proiektuko 110 neska-mutiko Bernedora (Araba). Hamar egun egin dituzte udalekuetan, eta bihar itzuliko dira Arrasatera, 18:30ak aldera.

Aurreko urteotan AKPkoek Burgos aukeratu dute udalekuak egiteko, baina aurten Araba aldean izan dira: "Burgosen oso gustura izan gara, baina Bernedon kanpin-dendetan egon beharrean aterpetxean egongo gara, eta neska-mutikoekin ibiltzeko askoz

ere erosoagoa da", esan digu Urtzi Amianok.

Burgosen bezala, Bernedon ere ekintza mordoia egin dituzte hamar egun hauetan: eskalada, rappela, soka-zubi tirolarra, olinpiadak, herri kirolak, mendi bizikletan irteerak, gonga, pira-guetan ibili dira...

HAMAIIA BEGIRALE

Horrenbeste neska-mutikoren ardura izaterakoan, ezinbestekoa da ondo antolatutako lantaldia izatea. AKPko hamaika begirale izan dira egunotan gazte- txoak zaindu, eta egin behar dituzten ekintzak antolatzen.



Udalekuetara zihoazen 110 neska-mutikoak irrikan zeuden gurasoak atzean utzi eta autobusera igotzeko.

IKER BARANDIARAN

BEHEKODENDATIK

Maria Angeles Uribetxebarria

NAROKI LIBURU DENDA

XABIER URZELAI

Astelehen gozien harrapau dogu Maria Angeles, jo eta sue, egindako eskaerak ondo ailegau dien konprobetan. 22 urte daroie liburuek saltzen, eta berak esaten dauen moduen aste bukaeretan libre egoteko zabaldu euen liburu dendie. Zapatuetan, baiñe, lan egitten dau.

Ze falta jako Mondragueri?

Gaztiendako etxebizitzak, oso larri ikusten dittut-eta.

Eta, ze dauko ona?

Herri langillie dala.

Ze falta jatzu zeuri?

Denpora librie.

Eta, ze dauketzu sobran?

Ezer be ez.

Pelikula bat. Liburu bat. Musika talde bat.

Aspaldi ez nazela zinera juen / Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea* nabil leidunt / Musika euskaldune gustetan jat.

Momentu honetan nora juen-go zitzake gustora?

Munduari bueltie emutera.

Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.

Plantxie.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Iñokin be ez. Hankak lurrien dauket! (Barre)

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Klientiek.

Denpora librien ze egitten dozu?

Baserrire jueten naz, lanera. Eta oso gustora ibiltten naz, deskonjektu egitten dot-eta.

Kapritxo bat.

Parapentien ibilttie. Eta hori, bertigue eukitte!!!


Aste bukaerie pasetako leku apropos bat.

Donostia gustetan jat.

Ze leiduko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Mondraguen gaztiendako etxe asko egin biher dauela, eta prezio onien, gaiñera.

Julixuen, urtien zihher askorik ikesi ez dauenendako udako



"Igerten da udan gehixau leidunt dogule, horretarako denpora librie eukitten dogu-eta"

liburuek salduko dittuzue, ala?

Bai, oin be horretan gabitz, liburuek eskaketan; eta ondiokan asko ailegau biher jaku.

Eta gaztiak ze umorekin etorten die horreik liburuok jasoten?

Danetik dau, baiñe normalien motibaute etorten die; izen be, irakasliek esaten dutzie ariketa danak egitten badaue oporetatik bueltan dana aprobauko dauela. Ikasliek ez dauena gure da ikasturtie repetidu.

Bakaziñotan mondraguetarrok gehixau leidunt dogu?

Bai, asko igerten da hori. Gaiñera, liburuek lasai leiduteko denporie biher da, eta bakaziñuek die horretarako momentu onena.

"Motibaute etorten die udako liburuek hartzera, dana egin ezkerro aprobau egingo daue-eta"

Udan ze leidunt dogu gehixen?

Nobelak.

Dendara sartu nazenien lanpetute ikusi zaut.

Bai, jentie liburu eske dabil eta horreik liburuok ez die ailegau. Eta dendarixok erdibidien gauzenez geuk jarri biher mosu ona. Neuk pentsetan dot ikastetxietako arduradunek ze eskatu biher dan lehenau esango baluskue ez zala hola-ko problemarik egongo, eta holan danak ibilliko gitzake hobeto.

Eta hori ez da dana.

Ez, udarako 30 liburu eskatu geuen, eta oin enterau gare irakasliek fotokopixak egin dauela. Ez dau hori parkatuko dauenik!

NIREBIDAIAHURA/ Maialen Egues

Grezia / 2004ko otsailetik ekainera arte

Egunek aurrera egiten zuten neurrian, Maialenek eta lagunek ikusten zuten irakasleen grebak ez zuela konponbide errazik. Ahaleginak egin zituzten eskolak hartu ahal izateko, baina oraindik ez zen posible. Hala, Greziako egonaldia bidaiatzeko aprobetxatu zuten. Santorini uhartera egin zuten lehenengo irteera. Bospasei egun egin zituzten han, eta Atenasera itzuli bezain pronto Meteorarako bidea hartu zuten, aste-buru pasa: "Bost orduko bidaiak egin genuen autoan, eta berandu iritsi ginen. Lo egiteko lekua hartu, afaldu eta ohera joan ginen zuzenean. Hurrengo egunean hango monasterioak ikusi genituen. Paraje ezaguna da; sekulako harkaitzen gainean daude eraikita monasterioak, eta monjeek sokekin igotzen dituzte beharrezko dituzten gauzak. Neskok gona jantzi behar genuen monasteriora sartzeko, eta kanpoan banatzen zituzten".

Handik gutxira Arrasateko lagun baten, Amaia Etxebestenren, bisita izan zuen Maialenek: "Sorpresa izan zen, ezer esan barik agertu zen-eta. Ez dakidana da nolatan iritsi zen gure etxeraino, ez zen-eta batera erraza. Ilusio handia egin zidan, eta egia esan, eskolekin genituen arazoak alde batera uzteko eskertzeak izan ziren izan nituen bisitak. Amaia eta biok gora eta behera ibili ginen. Akropolia erakutsi nion, beste behin, eta Hidra uhartera joan ginen. Hidra uhartea oso txikia da, eta han ez daude motordun ibilgailuak, astoekin ibiltzen dira. Guk oinez ezagutu genuen uhartea".

Mikonos uhartean ere izan ziren: "Arrasateko beste lagun batzuekin batera joan ginen hara. Sei orduko bidaiak egin genuen ferryan, eta hara iritsitakoan konturatu ginen gauza batzuk oso garesti zeudela; zazpi euro balio zuen Coca-Cola batek. Mikonos oso leku turistikoa da, eta baita apur bat berezia ere, gay asko joaten dira-eta hara; Marbellaren eta Sitgesen erdibidean dagoela esaten dute. Ikustekoak ziren hango arropa dendak".

XABIER URZELAI



Kostalde ederra du Greziak, baina barrualdea ere ikustekoa da.

"Neskok gona jantzi behar genuen monasteriora sartzeko"

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaiak kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.

ESKORIATZA

Tfno 714345
ERRETEGIA
MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99



SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

Tourra 2004



Ikustekoa!

TOURRA 2004
Babeslea:



TOURRA 2004
Saio berezia

Uztailaren 19an, astelehena,
20:30ean

ELKARRIZKETA

RAFA RUEDA/MUSIKARIA

“Kantu hauekin saiatu naiz biluzten, nire kezkek eta alderdiak erakusten”

IKER BARANDIARAN

Datorren egubakoitzean, uztailaren 16an, Rafa Rueda musikariak kontzertua egingo du Ferriasko plazatxoan, AEDren eta Kultur Errotaren eskutik. 23:00etan izango da emanaldia. Pilt taldeko abeslaria da Rueda.

Noiz eta zelan erabaki zenuen bakarkako proiektua egitea? Txuma Murugarreni laguntzerakoan bururatu zitzaizun?

Aspalditik neukan halako zerbait egiteko gogoia, baina Pilt taldearengatik eta nituen konpromisoengatik atzeratu egin behar izan dut. Bai Txumarekin eta bai Bingen, Urdangarin eta Kirmenekin lan egiteak erakutsi dit zelan lan egiten duten. Orain dela bost bat urte erabaki nuen bakarkako proiektua egitea. Diskoko kantu batzuk ordukoak dira, eta beste batzuk azkeneko urtekoak.

Zelakoa izan da Zaharregia, txikiagia agian proiektuaren esperientzia?

Oso ona eta aberasgarria. Musika beste ikuspuntu batekin eta beste diziplina batekin egiten ikasi dut. Hainbat eremutatik etorritako lagunok bat egin dugu, eta ikuspuntuak elkartrukatu. Urrian AEBetan eta Irlandan bira txikiak egingo ditugu, eta horren ostean gelditu egingo gara.

Formatuz eta abestiz aldatzeko premia handia zenuen?

Bai. Nahiko ipurterrea naiz. Nire kezkek kanporatzeko eta buruko txoriak askatzeko, beste erabait egin gura nuen. Hori lorzeko bidean nago. Saiatu naiz nire askotariko alderdiak erakusten eta biluzten. Horregatik, hitzak eta musika guztia nireak dira. Ni naizena erakusteko.

Diskoetxea eta musikariak aurkitzea erraza izan da?


Bai, zorte handia izan dut. Beste diskoetxe batzuen proposamenak izan nituen arren, gus-tuko dut Metak diskoetxeak zelan lan egiten duen, eta oso harrera ona egin didate. Musikariak disko-a grabatzeko eta zuzenekoak giteko hartu nituen. Oso gustu-a nago eurekin.

Zer-nolako harrera egin izute Pilt taldearen jarraitzaileek?

Denetarikoa; batzuek ona eta beste batzuek ez. Hala ere, Pilt taldeak oso publiko zabala izan du, ahiz eta metal estiloa landu. Horregatik, askok ulertu dute nik beste estilo batzuk egitea.

Diskoari Kea izena ipini izozu. Zergatik?

Agian, ohartu barik, errezaileen aldeko aldarrikapena egin dut. Niretzat keak estetiko-



METAK

“Idazterakoan, zulo baten hari baten punta ikusi eta handik tiraka ibiltzen naiz”

ki indar handia dauka. Ukiezina da, baina forma oso politak ditu. Gainera, bere atzean dagoena ez du ondo ikusten uzten.

Hitzak oso poetikoak eta intimistak dira, metaforaz josiak...

Idazle konpulsiboa naiz. Zulo baten hari baten punta ikusi eta handik tiraka ibiltzen naiz. Idazten hasten naiz, zertan bukatuko den jakin barik. Amodioaren gainean idatzi dut, baina oso zentzu orokorrean. Ez bikoteen artekoa, baizik eta giza harremanen gainekoa. Azken baten, maitasuna zentzu zabalenean bizitzaren motorra da.

Beste bakarlari batzuen giro ilunei uko egin diezu, eta pop-rock garbiagoa egin duzu...

“Aspaldiko partez, nire kantuetan baikortasun pixka bat sartzen saiatu naiz”

Bai, hasieratik argi neukan pop-rock alaiagoa egin gura nuela. Pilt taldearekin giro ilunagoak jorratu ditut, eta oraingoa bestelako giroak landu gura nituen. Musikan baikortasun pixka bat sartzen saiatu naiz.

Pilt taldeak jarraituko du?

Laster bosgarren diskoa prestatuko dugu, baina jarraitzeko erabakia guztion artean hartu beharko dugu. Proiektuak epe laburrean begiratzen hasi gara.

Eta bakarlari moduan luzaroan ikusiko zaitugu?

Luzaroan, ez dakit, baina jarraitzeko asmoa daukat. Bidea hasi egin dut, disfrutatzen nabil eta badut gogoia horretan jarraitzeko. Gainera, mamu gehiago ateratzeko beharra daukat.



Gaztetxoek ere esku hartu dute erakusketa horretan.

Zeramika erakusketa, Loixe elkarteko ikasleen eskutik

I.B.

Loixe elkarteak urte asko darama zeramika lantzen Nafarroa etorbideko egoitzan. Elkarteko ikasleek erakusketa ipini dute Monterronen. Lanak uztailaren 17ra arte egongo dira ikusgai.

Arrasateko Loixe elkarteak urte mordoia darama Nafarroa etorbidean duen egoitzan, isil-isilik, lanean. Gaur egun elkartean hogeit bat bazkide dira, baina orain arte hainbat lagun pasatu dira egoitza horretatik. Kide gehienak arrasatearrak diren arren, badira inguruko herrietakoak eta Arrasatera lanera edo ikastera etorritako lagunak ere bai, buztina lantzeko zaletasun horrekin bat egin dutenak.

LEHENENGO ALDIZ, MONTERRONEN

Orain arte, Loixe elkarteak urtean erakustaldi bakarra egin du; Santamasetan, hain zuzen ere. Artisauekin batera, Jokin Zaitegi plazan erakutsi ohi dituzte euren lanak.

Aurten, berriz, elkarteak antolatzen dituen ikastaroetako ikasleek erakusketa egin gura zuten, eta hala egin dute. Uztailaren 5ean zabaldu zuten eta hilaren 17ra arte egongo da ikusgai Monterrongo aretoan, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

Martitzenero eta eguenero, Loixe elkartean ikastaroak ematen dituzte. 17:00etan, gaztetxoei; eta 19:00etan, helduei. Aurten inoiz baino lagun gehiagok eman du izena ikastaroetan, eta oso

pozik daude bai elkartekoak eta baita ikastaroetako Eibarko irakasle Andikona ere. Izan ere, aurtengo lehenengo aldia da gaztetxoendako ikastaroak antolatu dituztena, eta oso harrera ona izan dute.

MOTA GUZTIETAKO LAN TXUKUNAK

60 bat lan batu dituzte Monterronen; gehienak ikasleek egin dakoak eta beste batzuk bazkideenak. Besteak beste, eskulturatxoak, eltzegintza —platerak, burruntzaliak...—, jarlekuak, mahaiak eta paretatan zintzilikatzekoak —ispiluak, margolanak...—. Oro har, oso lan txukunak aurki ditzakegu. Teknikei dagokienez, batez ere mosaikoak eta tornuz egindakoak daude.

ELKARTEKO ATEAK ZABALIK

Loixe aspaldiko elkartea da. Nafarroa etorbidean, Lantegi Eskolaren aparkalekuan egoitza txikia dute, eta han ibiltzen dira buztina lantzen. Han daukate behar duten material guztia, tornuak eta bi labe. Ez dute gehiago behar.

Ikastaroak egun eta ordu jakin batzuetan egiten dituzten arren, bazkideak edozein ordutan ibil daitezke. Urtean bakoitzak 48 euro ordaintzen ditu, giltza bana banatzen zaie, eta elkarteko materiala eta gailuak erabiltzeko askatasuna dute. 20 bat bazkide dira. Gazteenak 20 urte pasatxo izango ditu, eta nagusienak 50 urte inguru. Herritarrei elkartean bat egiteko gonbidapena egiten diete. “Zeramikak aukera asko ematen ditu, gauza asko egin daitezke, eta oso erlaxagarria da”.

60 bat lan ipini dituzte erakusgai Monterronen; denetatik dago, eta oso txukunak dira

Herritarrei elkartean bat egiteko gonbidapena egiten diete. Oso zaletasun erlaxagarria da

E, TXO!

ZAHAR BERRIK ERAGILE BAT BEHAR DU

Zahar Berrik, euskaldun berriei euskara praktikatzeko erraztasunak ematen dizkien taldeak, eragile bat behar du eguneko lau orduko lana egiteko. Derrigorrezkoa izango da euskara maila ona izatea, jendarekin harremanak egiteko erraztasuna izatea eta herrikoa edo ingurukoa izatea. Bidali curriculum-a AEDra, uztailaren 17a aurretik (Pablo Uranga 4).

BEGIRALE IKASTAROA TXATXILIPURDIN

Txatxilipurdik begirale ikastaroa antolatu du. Urritik ekainera bitartean egingo dute, zapatuetan. Derrigorrezkoa izango da 18 urte baino gehiago izatea edo 2005ean betetzea. Interesatuak 300 euro eta aterpetzeko gastuak ordaindu beharko dituzte.

TXATXILIPURDIREN ELASTIKOAK SALGAI

2004-2005 ikasturtean, Txatxilipurdi elkarteak hamar urte beteko ditu. Horregatik, gazteen aisialdirako lan egiten duen elkarte beterano horrek elastikoak egin ditu. Salgai daude elkarrearen egoitzan sei eta hamar eurotan.

OPORRAK PRESTATZEKO, JO GAZTE BULEGORA

Oporretan nora jo ez dakizula?; behin lekua aukeratuta, lo egiteko zein aukera daukazu jakin gura duzula?; herrialde bateko informazio beharrezko zaudela? Zalantza horien guztien erantzuna Gazte Bulegoran daukazu. Gazteendako informazio zabaldua dute batuta eta edozein argibide emateko prest daude. Asteleheneetik egubakoitzera dago zerbitzua zabalik, 10:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara.

GUREGAIK/ IRAKURKETA

Ibarreko liburutegiek 'Biblioporrak' gida kaleratu dute

IKER BARANDIARAN

Oporraldian, ibarreko hainbat udal liburutegik *Biblioporrak* gida kaleratu dute. 2003ko eta 2004ko euskarazko liburuen artean aukeraketa egin, eta proposamenak egin dituzte.

Badira urte batzuk ibarreko hainbat udal liburutegik —Arrasatekoa, tartean— oporraldiei begira *Biblioporrak* izeneko gida kaleratu dutela. Iaz Antzuolako batu zen, eta aurten Aramaiokoa. Gaur egun, honako udal liburutegien artean eginen dute gida hori, eta euren udalerrietan banatzen dute: Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza, Oñati, Antzuola, Aramaio eta Legazpi.

ADINEZ ADIN TALDEKA

Liburu bat eskuetan, hamaika altxor irudimenean leloa dauka gida horrek, eta aipatutako zortzi herrialdeetako liburutegi eta eskoletan banatu dute.

Adina kontuan hartuta, hainbat talde egin dituzte: 0 urtetik

Irakurketarako hainbat proposamen egiten dizkiote adin talde bakoitzeko lagunei

aurrerakoak; 6 urtetik aurrerakoak; 8 urtetik aurrerakoak; 10 urtetik aurrerakoak; gazteak; eta helduak.

Guk, batez ere, gazteen taldeari erreparatuko diogu. 6 eta 12 urte artekoak osatzen dute. Besteak beste, honako liburuak gomendatzen dizkiete: Conan Doyleren *El perro de los Baskerville* klasikoa; Gomezen *El cazador de estrellas* abenturazkoa; sexua berbagai duten *El diario rojo de Carlota* (Lienas) eta *Erotik* (Kazabon); Llobetek idatzitako amodiozko *Zugan pentsatuko dut*; eta D'Adamoren *Iqbalen historia*, besteak beste.



ARRASATE PRESS

Gida hori ibarreko udal liburutegietan eta eskoletan banatu dute.

NAGUSIAGOENDAKO ERE BAI

Horiek baino nagusiendako, nerabezaroan daudenendako eta helduendako oro har, beste hainbat proposamen egin dituzte. Besteak beste, Aristiren *Libreta horiko poemak* poesia liburua; Bello idazle asturiarraren *Paniceiros*; Ganboaren *Galtzea metodo kontua da* eta Schlinken *El engaño de Selb* polizi nobelak; Giardino-
ren *Vacaciones fatales* eta Art

Spiegelmanen *Maus* komiki-liburua; homosexualitatearen gaia jorratzen duen *Ezinezko maletak*; Atxagaren *Soinujolearen semea*; Faberren *Pétalo carmesí, flor blanca* liburu erromantikoa; eta beste batzuk.

Jakina, liburu horiek guztiak aipatutako udal liburutegi guztietan daude eskuratzeko moduan. Eta horiez gainera, proposamen gehiago dituzte.

GUREGAIK/ ESKOLA IBILTARIA

Ikasle Abertzaleak taldeak Eskola Ibiltaria egingo du uztailaren 15ean, 16an eta 17an

I.B.

Azkeneko urteotako ohiturari jarraituz, Ikasle Abertzaleak taldeak Eskola Ibiltaria antolatu du datorren astebururako, Euskal Herria da geure eskola leloarekin. Matrikula 20 euro izango da.

Ikasle Abertzaleak ikasleek osatutako taldea da. Unibertsitateetan eta ikastetxeetan egiten duten lanaz gain, oporraldian ere ekin

menak egiten jarraitzen dute. Horren erakusle da azken urteotan antolatu duten Eskola Ibiltaria. Urtero Euskal Herriko ingurune batetik ibilaldia egiten dute, eta bidean dauden herri eta herriarren arazoez eta bizipenez ikasten saiatzen dira.

Joan den urtean Debagoiena zeharkatu zuten. Aurten, berriz, Orreagatik Donibane Garazira joateko asmoa dute, hiru egunean, Pirinioak zeharkatuz; uztailaren 15etik 17ra, biak barne.

Orreagara heldu baino lehenago, Iratiko oihana ezagutzeko aukera izango dute, bainatu egin ahal izango dira eta landare tailerra egingo dute. Orreagan harrera ekitaldia egingo diete, eta berbaldia izango dute. Hurrengo geldiunean, Orreagatik, afaria egingo dute, ipuin kontalari batek harrera egingo die eta Izar eskolan igaroko dute gaua.

Luzaidera bidean, autobide transpiriniarraren gaineko solasaldia izango dute eta, besteak bes-

te, Azpegiko megalitoak bisitatu dituzte. Luzaiden dantza erakustaldia egingo dute eta hango laborari batekin izango dira. Helmugan, Donibane Garazin manifestazioa izango da. Horren ostean, bertso afaria eta kontzertua.

Mendi garaiak igo gura dituztenek ere ibilbidean horretarako aukerak izango dituzte.

Informazio gehiago eskuratzeko, Interneten: www.ikasle-abertzaleak.org

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrian erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82



Taberna Berri jatetxea

Durana 26
ARETXABALETAK
Tel.943 79 20 67

UGARTE

Industria hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Jakin-min handia zuten Toki Argi elkartean batutako erretiratuek. Galdera asko egin zizkieten berbaldia egin zuen osasun adituari.

Larruazalak duen garrantzia eta zelan zaindu azaldu zuten Toki Argi elkartean

IKER BARANDIARAN

Eguaztenean, Gipuzkoako Kutxa Ikasgelak berbaldia egin zuen Toki Argi erretiratuen elkartean. Jazmina Nuñez adituak larruazala zelan zaindu azaldu zien Santa Marinako elkartean batutako lagunei.

Berbaldiaren helburua izan zen larruazala ondo zaintzeko printzipioak eta ohitura onak zabaltzea, ez zaintzeagatik sor daitezkeen arazoei aurre hartzeko. Hala, horren harira, larruazala ondo hidratatuta edukitzeak duen garrantzia eta eguzkitan axola barik egoteagatik sor daitezkeen arazoak azpimarratu zituen.

LARRUAZALAREN MESEDEAK

Nuñezek azaldutakoaren arabera, larruazala gorputzaren pisuaren %7 da. Hiru geruza ditu eta 0,5 eta bi milimetro arteko zabalera dauka.

Larruazalak izugarritzko mesedea egiten dio gizakiari:

kanpokotik babestu egiten du. Horri esker, mikroorganismoek ezin dute kalterik egin; gorputzaren tenperatura erregulatuta egiten du; eguzkitik hartzen dugun D bitamina sintetizatuta egiten du; eta besteekin komunikatzeko oso baliagarria da. Askotan, elkar ukituta berba eginez baino gehiago komunikatzen da.

ZAHARTZEAN, POLIKIAGO BIRSORTU

Gorputzeko beste edozein atalen moduan, azala ere zahartu egiten da. Uneoro azala birsortzen doa, baina gizakia zahartzen doan heinean polikiago birsortzen da. Horregatik, indarra eta elastiko-

tasuna galduko ditu eta zimurrak irtengo dira. Horrez gain, pigmentazioa ere txikitu egingo da eta eguzkiak kalte handiagoa egingo du.

LARRUAZALA ZAINTEKO AHOLKUAK

Orokorrean, larruazala ondo izateak gizaki baten itxura hobetzen du, eta nor bere buruarekin ondo sentitzen laguntzen du. Aldiz, azaleko arazoak izateak bati baino gehiagori konplexuak sortzen dizkio. Esate baterako, soriasis dutenek harremanak izateko zailtasunak izaten dituzte, duten gaitzarekin lotsatu egiten direlako.

Gorputza barrutik eta kanpotik hidratatzea komeni da. Kanpotik, koipea duten kremekin; eta barrutik, urarekin, infusioekin, zuku naturalekin, garagardoarekin eta jelatinarekin.


Dutxa hartzea eta bainatzea oso ona da, baina bere neurrian. Gaur egun lagun asko sarriegi garbitzen dira, eta horrek azalari kalte egiten dio. Kalte handiena xaboiak duten garbigarriek egiten dute. Xaboiak zenbat eta usain eta bits handiagoa izan, orduan eta txarragoak dira. Elementu horiek azalaren birsorkuntza oztopatu egiten dute.

Arrazoï horregatik, Nuñez adituak azpimarratu zuen asko jota egunero edo bi egunetan behin dutxa hartu behar dela, eta komeni dela ahalik eta xaboi naturalena erabiltzea. Horrez gain, esan zuen oso garrantzitsua dela garbitu ostean, batez ere gorputzaren tolesdurak ondo lehortezea. Hain zuzen ere, belarri atzeetan, atzamar arteetan, izterondoan eta bularrean ondoak irteteko arriskua dago.

Zahartzaroan ez da egarri sentsazio handirik izaten, baina ura edatea oso garrantzitsua da

Sarriegi garbitzeko joera dago. Komeni da ahalik eta xaboi naturalenak erabiltzea

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

Jili Jili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

LABUR

Uribarriko erretiratuek Hondarribiara

Uztailaren 22an, Uribarri erretiratuen elkarteak Hondarribiara txangoa egingo du. Hara joango direnek Hondarribia bisitatzeaz gain, Guadalupeko gotorlekua ere ikusiko dute. Interesatuak lehenbailehen eman beharko dute izena. Eguaztenean egingo dute zozketa, 17:00etan.

Toki Argi elkarteko ile apaindegi zerbitzua

Udalak lehiaketa publikoan atera du Toki Argi erretiratuen elkarteko ile apaindegi zerbitzua. Urtebeterako ustiaketa izango da, eta bost urtera arte berriro ahal izango da. Ile apaintzaileak urteko lanegun guztietan egin beharko du lan, astelehenetik egubakoitzera; eta zapatuetan, goizez.

Esklerosi anizkoitzaren aldeko ekimena

Etzi, domeka, Toki Argi elkarteko erretiratuek esklerosi anizkoitza dutenen aldeko *Busti zaitez* ekimena egingo dute. 10:00etatik 19:00etara erretiratuek Musakolako igerilekuan egongo dira gaitz hori dutenen alde dirua batzen. Igerilarien borondate ona eskertuko dute.


Santa Marinako erretiratuen bazkaria

Datorren zapatuan, uztailearen 17an, auzoko erretiratuek bazkaria egingo dute, Santa Marinako jaiak direla-eta. Urtero egiten dute. Mesedetako Amak eskolan duten aretoan egingo dute. Interesatuak Toki Argi elkartean eman beharko dute izena, uztailearen 12a baino lehen.

Aretz
Taberna

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

EZETZASMATU



ARTXIBOA

Zein lekutan dago irudiotan ikusten duzuen parke hori?
Arrastoa: gaztetxo asko ibiltzen da inguruan.

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Calvo atun argia
3 latako packa

2,25€ 374 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MIREIA GARCÍA arendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Mireia!
Galderen erantzun zuzena:
San Andres auzoan.

ARRASATEKO HISTORIA

Joan den mendearen erdialdeko aldaketak (IV)

"NIRE HAURTZAROKO..." / VELEZ DE...

Joan den mendearen erdian gure herrian izan ziren aldaketan gainean berba egiten jarraituko dugu. Oso nabarmenak dira, adibidez, etxebizitzaren gainean Josemari Velez de Mendizabalek aipatzen dituen datuak: "1956-1960 bitartean 407 etxebizitza berri egin ziren eta beste 300 amaitzeaz zeuden. Garaiko etxeen prezioa, batzaz beste, ehun mila pezeta ingurukoa zen. Langile arrunt batek, urte haietan, hogeita mila pezeta soldata gordina zuen. Edozeinek atera dezake erlazioa, gaur eguneko ratioarekin alderatuta, desberdintasunik ote dagoen kalkulatzeko. Gaurko Garibai kalean ikasi genuen askok txirriinduan, 1958ra arte ez baitzen ireki trafikora eta data horretan Maalako zubitik Biteriko bidegurutzeraino egin zen. Ostegun arratsaldeetan, ikastetxean jai, txirridularitza lasterketak antolatzen genituen Nafarroa etorbidean, trafikoaren arriskua zer zen ez genekielarik. Oraindik ikusten ari naizela dirudi, Juan Bautista Usandizaga udal kapatazatarra kaleko zuloak breaz estaltzen ari, handik pasatuko ziren Txaparro edo Kikoren zalgurdietako gupilak bertara sar ez



ARTXIBOA

Garaiko etxeen prezioa, batez beste, ehun mila pezeta inguru zen.

zitezen, nonbait. Juan Bautista, asteasuarra jaiotzez, oso pertsonaia herrikoia genuen, apal eta jatorra. Parrokiako abesbatza eta Santa Agedako koroan ezinbesteko partaidea, euskal kutsu sakoneko kantekin harritzen zituen entzuleak. (...)

*"Cerrajerak
Zigorrola, San
Lorentzo eta San
Juanen etxeak
eraiki zituen"*

50.dekadarekin batera Asociación Mondragonesa del Hogar izeneko elkarte sortu zen, San Juan Bautista Langile-Anaiarten bultzadari esker, batik bat. Unión Cerrajerak Zigorrola, San Lorentzo eta San Juan auzoetan etxeak eraikitzeari ekin zionez,

herrian diskriminaziorik ez izateko Elmak bere lursailetan ere eraiki nahi izan zituen langile-entzako etxeak. Horrela, Maalako futbol zelai zaharrea hasi ziren baina proiektuak porrot egin zuen. Orduan, On Jose Maria Arizmendiarraren aholkuei jarraiki, Elmak San Juan Bautista Langile-Anaiarten bitartez Asociación Mondragonesa del Hogar sortu zuen. Iparragirre magalean, Makatzena baserriaren ondoko lursailak erosi ziren, oso merke, geroko urbanizazioak kostuak biziki jaso bazituen ere. Helburua, etxebizitzaren beharrez zeuden interesatuei tramiteetan laguntzea zen, esfortzuak koordinatuz eta kostuak jaitzaraziz. Ehun bat etxebizitza eraikitzea zen lehen xedea, hasierako kapitala bostehun mila pezetakoa izan zuelarik.

Biztanleriaren bat bateko hazkunde hark premien gorritasuna azaleratu zuen eta Udalak irudimena zorrotzu behar izan zuen betiko arrasatearren eta iritsi berrien eskakizunei erantzuna emateko. Argiarena izan zen lehenik konpondu beharreko gaitako bat. 1958an lotu zitzaizkion udal arduradunak herriko argiteriaren berrikuntza eta eguneratzearen azterketari".

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko uztailearen 9a / 116. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Erantzun ona izan dute aurtengo udako ikastaroek

UBANE MADERA

Martitzenean egin zuten aurtengo udako ikastaroen irekiera ekitaldia. 60 lagundik gora batu ziren zinema aretoan. Gaur, barikua, izango da itxiera ekitaldia.

Mertxe Mondragon alkateak eman zien ongi etorria udako ikastaroetako hizlariei zein entzuleei. Jende dezente batu da egunotan kultura etxeko zinema aretoan. Orain artekoari begiratuta, batzaz beste, 60 lagundik gora izan dira aurreneko bi egunetako ikastaroetan. Hala, inguruko herrietatik aparte (Aretxabaleta, Arrasate, Aramaio...) urrunagotik ere etorri dira interesatuak XVI. mendeko Euskal Herriaren gainean gehiago ikasteko asmoarekin. Antolatzaileen esanetan, egunotan, oro har, EAEko hiru probintzietatik etorri da jendea Aramaiora.

BALORAZIO POSITIBOA

Gauzak horrela, ikastaroen antolatzaileek aurtengo edizioaren gai-



Argazkian, Pruden Gartzia Isasti, Mertxe Mondragon eta Henrike Knörr.

neko balorazio positiboa egin dute eta adierazi dute oso gustura dardela bai eskolekin bai eta Aramaion urtero izaten duten harre-
rarekin. Henrike Knörr euskal-

tzainburu-ordeak ere hala azaldu zion Mertxe Mondragoni irekiera ekitaldian. Gaur, barikua, itxiera ekitaldia egingo dute lau hitzaldiak eta mahai-ingurua bukatu eta gero.



Kontzertua Barajuengo elizan

On Emilio parrokoak jakinarazi digunez, bihar, zapatua, kontzertua egingo dute Barajuengo elizan. Meza ostean izango da, 20:00etan; Saudade talde polifoniko gasteiztarrak egingo du kontzertua. Goi-mailako musika interpretatuko dute: polifonikoa, garaikidea eta klasikoa. Sarrera doan izango da. Kontzertua Arabako Abesbatzen Federazioak antolatu du. /U.M.

Bihar goizean herritar ugarik parte hartuko du arrantza lehiaketan

U.M.

Dagoeneko guztia gertu dago bihar arrantza lehiaketa egiteko. 09:00etan hasiko da aurtengo edizioa. Oilogor elkarteok 60 bat kilo amuarrain ekarri dituzte.

Esandako moduan, 09:00etan hasiko da arrantza lehiaketa, eta 13:00etan bukatu. Izena bihar bertan eman daiteke. 14 urtetik beherakoentako doan izango da, eta hortik gorakoek, berriz, hiru euro ordaindu beharko dute. Urtero moduan, Oilogor Ehiza eta Arrantza Elkarrekin antolatu du lehiaketa. Aldundiari eskatuta, 200 bat amuarrain askatuko dituzte errekan. Elkarteko kide Eduardo Fernandezek azaldu digunez, lehia-

keta baino gehiago denbora-pasarako ekimena da. Hala, irabazleendako ez ezik, parte-hartzaile guztiendako ere sariren bat lortzen ahaleginduko direla esan digu.

KONTUZ IBILTZEKO GOMENDIOA

Bestelako edizioetan 60-70 bat lagunek parte hartu dute lehiaketan eta aurten ere antzerako parte-hartzea espero dute. Edozelan ere, jendea animatu nahi dute parte hartzera, eta hori bai, gurasoei umeak zaintzen kontuz ibiltzeko gomendioa eman nahi die Eduardo Fernandezek. Kontua da, orain, erreka ur gutxirekin datorrenez, amuarrainak ur handiagoak dauden lekuetan askatu behar dituztela. Horren ondorioz, batez ere, gaztetxoek kontuz ibili behar dute, uretara jausi ez daitezela.



200 bat amuarrain askatuko dituzte errekan arrantza lehiaketarako.

LABUR

Egun osorako jaiak antolatu dute San Kristobalerako

Domekan ospatuko dute San Kristobal eguna urribarrirrek. Karmelo Garaitonaindia auzo alkateak kontatu digunez, 12:00etako mezarekin hasiko dute ospakizuna. Horren ostean, salda beroa eta pintxo gozoak izango dira eta Lagun Arteen dantza taldeak saioa egingo du. Gero, ohiturari jarraituz, herri bazkaria izango da eta baita erromeria ere. Eta jolas apur bat egin nahi duenarendako, bolotxapelketa antolatu dute arratsalderako, sari eta guzti.

Ikusten duzuen bezala, egun osoko jaiak antolatu dute urribarrirrek eta jendea animatugura dute, San Kristobalera joateko. Eguraldiak lagunduko gero, giro ona ziurtatuta dago.

ARTXIBOA

SANMARTINAK04

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Bonika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erzaizta (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutzte Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kirioldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiztaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50*	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BARIKUKO ZINEMA

San Martinen ostean, gauñ, barikua, hasiko dira berritako asteburuko zinema saioekin. Oraingo honetan, Gary Ross zuzendariaren *Seabiscuit más allá de la leyenda* filma emango dute. Drama da 140 minutuko film hori. David McCullough, Jeff Bridges eta Paul Vincent O'Connor dira aktoreetako batzuk.

ARGIA JOAN ZEN

Martitzen gauean egindako ekaitzak argi barik utzi zituen Aramaio eta inguruak. Eguaztenean, goiz partean konpondu zuen Iberdrolak arazoa.

TXIRITOLINPIADEN ZUZENKETA

Astelehenero *Goienkaria*-k Txirritolinpiaden gainean argitaratutako artikuluar zuzenketa bat egin beharrean gaude; izan ere, maila bakoitzean hiru lagunek irabazi zuten, eta ez bakarrik. Hala, nagusien mailan, Asier Beitiak, Ekaitz Gredillak eta Inigo Carreterok irabazi zuten; eta gazteen mailan, Julen Ibabek, Jokin Balantzategik eta Andoni Elejaldek. Zorionak, guztiei.

Etorri eta joan dira San Martinak, eta bidean asebetetasuna utzi dute herritarren artean. Hala esan digute behintzat kalean. Jaiak Aramaio Tropikaleko Gazte Asanbladak antolatu izanak gazteak jaietan parte hartzerantzatu ditu, eta hori asko igarri da herrian izan den giro onean.

Aramaio Tropikaleko Gazte Asanbladakoak pozik daude emaitzarekin. Esan digute ezarritako helburuak bete egin dituztela. Pozik daude, esaterako, kanpoko jendea ibili delako jaietan; kontatu digute batez ere talde txikien kontzertuek erakarri zutela jende gazte gehien. Bestelakoan artean,

umeen jolasak oso ondo atera zirela adierazi digute, eta *Kuadrila arteko pikie* oso berezia izan zela, "herri erdi begira eta barrez zegoelako". Horrekin batera, Gau Alai taldeak parke inguruan egin zuen erromerian sortu zen giro ona nabarmendu dute eta baita ere domekako mariachiek Aramaio plaza betetzea lortu zutela; sekula baino jende gehiago egon zela esan digute. Harri-zulataileekin ere herritarrek gustura geratu dira (batez ere apustuekin) eta berriro ekartzeko eskatu diete. Eta umeen antzerkiarekin ere pozik dira gazteak. Oro har, dena oso ondo irten dela esan digute.



Arrasate Musikalen saioak aretoa bete egin zuen; txalo ugari izan ziren etxeokendako.



Gaztekoenak ederki asko ibili ziren jolasean eta lantegietan parte hartzen.



Astelehenero ohiturari eutsi eta arratsalderako mozorrotuta zebiltzan batzuk.



Kuadrila arteko pikie arrakasta handia izan zuen parte-hartzaileen eta ikusleen artean; batez ere, *Katxitoldo* jolasak; hori bai, kolperen bat zein beste hartu zuen gazteek.

ERRETRATUZAHARRA

Mondra taldea Atotxa futbol zelaian

Beste astebetez, futbol kontuak izango dira tarte honetan protagonista. Oraingoan, 1949. urteko Mondra taldeari begiratuko diogu.

Irudiotako argazkia Atotxan dago aterata. Mondrak Pasajesen kontra jokatu zuen partidua eta 2-6 irabazi zuten mondragoetarrek.

Honako hauek azaltzen dira argazkian, goian, ezkerretik hasita: Gregorio Bolinaga, Luis Arregi, Jose Ramon Uribarren, Victor Baltzategi (atezaina), Juan Egidazu Curry eta Jose Errasti. Eta behean, ezkerretik eskumara honako hauek daude: Ignacio Zeziaga *Divino*, Eugenio Arregi, Eugenio Baltzategi, Errasti *Lauton* eta Jose Mari Guridi.

Gure berriemaileak kontatu digu Mondra taldea asko jota astean behin entrenatzen zela, ahal zuenean; izan ere, sasoi hartan zapatueta lanera joan beharra zegoen, eta askotan domeketan ere bai. Asko entzuten zen Arrasaten Ingalaterran jai hartzen zutela, baina hona geroago etorri zen



hori. Horrela, lanaren eraginez, partiduak domeka arratsaldeetan jokatzen zituzten.

Behin baino gehiagotan aipatu izan dugu Maalako futbol-zelaian jokatzen zituztela partiduak. Futbol-zelai hura alokatu egin behar izaten zuen Mondra taldeak. Dagoberto Resusta eta

Elma lantegia ziren zelaia jabeak. Hala, halako batean, zelaia ixtea erabaki zuten. Tolosaren kontra jokatu zuen Mondrak Maalan jokatu zen azkeneko partidu hartan. Mondrak irabazi egin zuen. Eta partidua ostean, musika-bandarekin batera, manifestazioa egin zuten, zelai berri

eske. Zozketak eta bestelakoak ere antolatu zituzten dirua lortzeko. Eta azkenean, lortu zuten zelai berria.

Argazkia: Centro de Accion Catolicako bilduma.
Informazioa: Eugenio Baltzategi.
Urtea: 1949.

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK


Gesalibarko elizpea, 1937an

Argazki zaharra otsailaren 5ean egindakoa da, Santa Ageda egunean. Sasoi hartan, 700 gudari abertzale Asturias aldera bidaltzea erabaki zuen Jose Antonio Arana lehendakariak. Eta Aramaion elkaritu ziren guztiak. Hala, Aramaion zeuden mondragoetarrak Santa Ageda auzora jaitsi ziren meza entzutera, eta, hain zuzen, orduan ateratako argazkia da.



≈ 1937

Argazkiaren ezkerreko erakina mojen komentua zen, eta hormaren gainean dagoen eraikina gizakumeen eroetxea.



2004

Egun, eraikin horiek ez dira askorik aldatu, nahiz eta berritze lanak egin dituzten. Santa Ageda-ko elizaren fatxada ere berdin-berdin dago.



**Gambrinus
garagardotegia**

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



PROFESIONAL
liberalak

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK
Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

EMUN KOOP. E.
Uriburu 9, behea. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26
emun@emun.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
Otalora 16, solairuartera, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net


ABOKATUAK

**LIA ALTUNA
BEGOÑA LASAGABASTER**
Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA
Zerkaosteta 17 behea
Tel.: 943 79 67 78 / Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

Edertasun gida



ILE APAINDEGI MISTOA

iaran

Zerrajera 1,
Tel.: 943 79 81 79

Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian
zapatuak: 08:00-14:00

BITXORI
ile apaindegia

Erdiko kale 52
Tel.: 943 79 88 32

Maatz
ILEAPAINDEGIA

Antso Abarka, 3 bajo · Musakola
ARRASATE · Tf. 943 79 58 78

JADE
ILEAPAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

ILEAPAINDEGIA

virginia.L

MISTOA

Lapurdi 3. Zigarrola.
ARRASATE
Tel.: 943 79 65 65

AUSART

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

ILEAPAINDEGIA

ILEA
UNISEX

Ferrerias 14 - 943 79 87 62

Lore

Olarte 10 · ARRASATE · 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

KORA O'NEAL Ayer HR CLARINS BIOTHERM VALMONT